

ikasLAN

Bizkaia

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarea
Red de centros públicos de Formación Profesional

2016. Urteko Txostena

LH TESTUINGURUAK 2016

IKASLAN BIZKAIA

PROIEKTUAK

KOMUNIKAZIOA



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



TESTUINGURUA 2016

Proiektu berriak martxan ipini eta egonkortu egin dira 2016an, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean ezarritako helburuetan sakonduko duten ekimenak. Plan honek enpresatik gertu egongo den Lanbide Heziketa du oinarri, enpresen beharrei erantzuna emango diena epe laburrean, eta ekonomia ehunduraren lehiakortasuna egonkortuko duena. Ezagutza eta berrikuntzaren apustua egingo duen lanbide heziketa, pertsona izango duena funtsezko helburu gisa.

Heziketa Duala Ikas-ekinezko Erregimenean

Aurrerapauso garrantzitsua eman da enpresen konpromisoan eredu honekiko, LHko ikastetxean eta enpresan egindako heziketa tartekatzen dituen. 2016-2017 ikasturtean 790 enpresa engaiatu dira (2012-2013an, programa hasi zenean, sartu ziren 95 enpresen aldean). Ikasleen berehalako enplegarritasuna % 77koa da titulazioa lortzean.

Espezializazio programak

1. Promozioa

Euskadi bertako espezializazio ziurtagiriak, trebakuntza eta gaitasun profesional maila altua bermatzen dutenak. Ekoizpen sektoreen beharretan oinarrituta diseinatzen dira. Ikasleek 2.000 praktika ordu baino gehiago biltzen dituzte.

LH ikastetxeen sarea

Nodoak Sarean

Ikastetxe espezializatuen sarea. Gai eta helburu batzuen baitan banatuak daude, ezagutza eta baliabide zehatzak garatu eta enpresen eskura ipintzeko.

5 nodo:

Fabrikazio aurreratua, fabrika digital eta konektatua, energia, biozientziak eta bioteknologiak eta zibersegurtasuna.

Jarduera ekintzaileari laguntza

Irekin
Irakasle ekintzaileak, ikasleria ekintzailea sustatzeko.

Irakasleei ekintzaile eta berritzaileago izaten lagunduko dien heziketa ibilbidea, errealitate ekonomiko eta sozialaren ezagutza eduki eta ikasleei helarazteko gaitasuna izateko.

Gaitasun berritzailearen garapena


BE
Berrikuntza ohiturak

Behaketa, ekimenen kudeaketa eta emaitzen ustiaketa gaitasunak garatzea KoP-en bidez. Ezagutza bat garatzeko asmoarekin eratutako komunitateak, elkarlanaren, ikasketak partekatzearen eta esperientzia praktikoen bidez..


LH DUALA IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEAN

LH Duala Ikas-ekinezko Erregimenean. 2016-2017. EAE

Azken 4 urteetako joera jarraituz, hazi egin da beren heziketarako aukera hau hautatzen duten ikasleen kopurua. Era berean, igo egin da heziketa eredu honetan sartzen diren enpresa eta ikastetxeen kopurua.



Ikasle kopuruaren bilakaera



Ikas-ekinezko Erregimeneko LH Dualan ikasle gehien daukaten heziketa formalko 2016-2017



2016-2017 Proiektuak

zentroak

81


Ikasleria

1.283


790

enpresak

Ikastetxe kopuruaren bilakaera




Enpresa kopuruaren bilakaera



MATRIKULAZIOEN BILAKAERA


2016-2017 ikasturtean 16.933 matrikulazio izan dira guztira Bizkaiko lurralde historikoan eskaintako heziketa ziklo ezberdinetan. 6.990 erdi mailako heziketa zikloetan eta 9.943 goi mailan. 1.024 matrikulako hazkundera eman da aurreko ikasturtearen aldean.



● Goi maila
 ● Erdi maila

MATRIKULAZIOAK HEZIKETA FAMILIA, SEXUA ETA MAILAREN ARABERA. Bizkaia. 2015-2016 ikasturtea

Ikasle gehien daukaten heziketa familiak



Elektrezitate eta Elektronika



Osasungintza



Fabrikazio Mekanikoa



Gizarte eta Kultur Zerbitzuak



Administrazioa eta Kudeaketa

Emakumeak
5962

Gizonak
9.947

● Goi maila

● Erdi maila



Iturria: Eustat.

IKASLAN BIZKAIA, SARE PUBLIKOKO IKASTETXEAK


2016an Elkarteak 20 urte bete ditu lurraldeko Lanbide Heziketa publikoaren garapenaren alde lanean.

IES Angela Figuera BHI batu da, eta sarea 23 ikastetzez osatua gelditu da.



- | | |
|---|---|
| 01 CIFP ZORNOTZA LHII | 13 CIFP TARTANGA LHII |
| 02 IES BARRUTIALDE BHI | 14 IES (ITS) HOSTELERÍA/OSTALARITZA (ITB) BHI |
| 03 IES (ITS) CONSTRUCCIÓN BIZKAIA (ITB) BHI | 15 IES ANDRA MARI BHI |
| 04 CIFP NICOLAS LARBURU LHII | 16 CIFP FADURA LHII |
| 05 CIFP BIDEBIETA LHII | 17 CIFP IURRETA LHII |
| 06 IES ESCUELA DE FP NAUTICO PESQUERA DE BERMEO • BERMEOKO NAUTIKA ETA ARRANTZAKO LH ESKOLA BHI | 18 IES (ITS) ESCUELA DE HOSTELERÍA DE LEIOA (ITB) BHI |
| 07 CIFP ELORRIETA-ERREKA MARI LHII | 19 IES MUNGIA BHI |
| 08 CIFP EMILIO CAMPUZANO LHII | 20 CIFP REPELEGA LHII |
| 09 IES ESKURTZE BHI | 21 CIFP SAN JORGE LHII |
| 10 CIFP TXURDINAGA LHII | 22 IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI |
| 11 IES ESCUELA AGRARIA DERIO • DERIO NEKAZARITZA ESKOLA BHI | 23 IES ÁNGLEA FIGERA BHI |
| 12 CPDE KIROLENE KIIP | |


GOBERNU ORGANOA

Elkarteko gobernu organoak arduratuko dira aipatu ekimen eta proiektuak biltzen, aurkezten eta sustatzen, gero bertako bulego teknikoak kudeatu eta zuzendu ditzan.



LANKIDETZAK IKASLAN BIZKAIA SAREAREKIN

Ikaslan Araba, Ikaslan Gipuzkoa eta Ikaslan Bizkaiaren arteko lankidetzak faktore gakoa izan da euskal Lanbide Heziketa Publikoaren presentzia bultzatzeko orduan gizarte eta enpresa sare-ehuna osatzen duten agente desberdinen artean, hala EAE barruan zein honetatik kanpo ere.




LANKIDETZA INSTITUZIOEKIN

Administrazio Publikoarekin elkarlanean ari-
tzeak gure jarduna eta proiektuak Euskadiko
estrategia-ildoan bidetik doazela bermatzen
du. Ikaslan Bizkaia ondoko erakundeekin har-
tu-emanetan dago etengabe: **Eusko Jaur-
laritzako Lanbide Heziketako eta Etenga-
beko Ikaskuntzako Sailburuordetzarekin,**
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailarekin eta Eusko
Jaurlaritzako Enplegu Sailarekin.

Gainera, Administrazioek dinamizatzen dituz-
ten eta enplegu, prestakuntza, ikaskuntza,
gazteria, berrikuntza eta trebakuntza arloekin
zerikusia duten sail eta erakunde guztiekin
loturak ditugu: **Lanbide Heziketaren Euskal**
**Kontseilua, LHEK, Gaztedi Foroa, Euskadi-
ko Eskola Kontseilua, Laneki, Innobasque,**
Red Innovanet, Berritzeguneak eta BFA.



LANKIDETZA ENPRESA AGENTEEKIN


LANKIDETZA ENPRESA AGENTEEKIN


Ikaslan Sarea
 Harreman Instituzionalak
 Enpresa eragileak
 Beste eragile batzuk

 Lan Heziketa
 Kirol Irakaskuntzak

HEZIKETA ESKAINTZA. LANBIDE HEZIKETA

Jarduera Fisikoak eta Kirolak	Gorputz-eta kirol-ekintzen sustapena
Administrazioa eta Kudeaketa	Administrazio kudeaketa Administrazioa eta finantzak Zuzendaritzari laguntza ematea
Nekazaritza	Lorazaintza eta loradenda Nekazaritza ekologikoa Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea Paisajismoa eta landa-ingurunea
Arte Grafikoak	Inprimaketa grafikoak Aurreinprimaketa digitala Produktzio grafikoaren diseinu eta kudeaketa Argitalpen inprimatu eta multimedia-argitalpenen diseinu eta edizioa
Merkataritza eta Marketina	Merkataritza jarduerak Nazioarteko merkataritza Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeaketa Garraio eta logistika
Eraikuntza eta Obra Zibila	Barnealdeetako, dekorazioko eta birgaitzeko obrak Eraikuntza Obra zibileko proiektuak Obra zibileko proiektuak Obren eta planen burutzapena
Elektrizitatea eta Elektronika	Instalazio elektriko eta automatikoak Telekomunikazio instalazioak Mantentze-lan elektronikoa Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak Automatizazioa eta robotika industrialak Telekomunikazio- eta informatika- sistemak.
Energia eta Ura	Energi-eraginkortasuna eta eguzki-energia
Fabrikazio Mekanikoa	Mekanizazioa Soldadura eta galdaragintza Metal eraikuntzak Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa

Ostalaritza eta Turismoa	Sukaldaritza eta gastronomia Jatetxe arloko zerbitzuak Bidaia agentzietako eta ospakizunen kudeaketa Turismo gidaritza, informazioa eta laguntza Sukalde zuzendaritza Jatetxe arloko zerbitzuen zuzendaritza
Irudi Pertsonala	Ile-apainketa eta -kosmetika Estetika eta edergintza Estetika integrala eta ongizatea Ile-apainketako estilismoa eta zuzendaritza Karakterizazio eta makillaje profesionala
Irudi eta Soinua	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua 3D animazioak, jokoak eta multimedia elkarreragileak
Elikagaien Industriak	Okintza, gozogintza eta konfiteria
Informatika eta Komunikazioak	Mikroinformatika-sistemak eta sareak Sare-informatika sistemen administrazioa Web-aplikazioen garapena Plataforma anitzeko aplikazioen garapena
Instalatzeko eta Mantentze Lanak	Mantentze-lan elektromekanikoa Beroa sortzeko instalazioak Hozteko eta giroteko instalazioak Instalazio termiko eta fluidodunen proiektuen garapena Mekatronika industrialak Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua Laneko arriskuen prebentzioa
Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak	Instalazioa eta altzari-hornikuntza
Itsasoa eta Arrantza	Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzea eta kontrolatzea Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzeko lanak antolatzea
Kimika	Laborategiko eragiketak Analisisiko eta kalitate kontroleko laborategia Ingurugiro-kimika

82 LHko titulazio

 52
 Goi mailako titulazioak

 30
 Erdi mailako titulazioak

Osasungintza	Erizaintzaren laguntza Osasun-larrialdiak Osasun dokumentazioa eta administrazioa Ahoaren eta hortzen higieena Diagnosi klinikoen laborategia Ingurugiro-osasuna Dietetika
Gizarte eta Kultur Zerbitzuak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta Animazio soziokulturala eta turistikoa Haur hezkuntza Gizarteratzea
Enhungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	Patroigintza eta moda
Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak	Karrozeria Ibilgailuen automobilen elektromekanika Makineriako elektromekanika Automozioa

HEZIKETA ESKAINTZA. KIROL IRAKASKUNTZAK

 Goi maila  Erdi maila



Atletismoa



Saskibaloia



Eskubaloia



Futbola


 

2015-2017 Ikasturtea










Mendi Kirolak eta Eskalada

Goi Mendia  
Sakanak 
Eskalada  
Mendiko Eskia 
Mendi Ertaina 



Neguko kirolak

Eski Alpetarra  
Iraupen Eskia  
Snowboard  



2016-2017 ikasturtean, gehitu dira:



Urpeko igeriketa





Judo





Bela



IKASLAN BIZKAIARAEN PROIEKTUAK

2016. Gure proiektu berriak

- Osalane
- Laneko bitartekaritza zerbitzua




Elkartearen arlo operatiboa eta sarea osatzen duten ikastetxeak etengabe hobetzeko gabilta beharrea. Horretarako, proiektu eta ekimen ezberdinei ekiten, ekarriko dutenak kudeaketaren optimizazioa, profesionalen prestaketaren hobekuntza eta gure ikastetxeetan ikasleentzako eta hiritargo osoarentzako zerbitzu berriak ezartzea.

2016 Garatutako Ikaslan Bizkaiaren proiektuak


Proiektua	Azalpena
Osalane	On-line tresna baten garapena hasi dugu, hiritarren eskura gune bat ipiniko duena, bertara jotzeko osasun fisikoaren zaintza eta mantenuaren inguruko informazio bila. Garrantzi berezia ematen zaio ergonomiari, eta lanpostura egokitzeko mugimendu ohitura edo errutina txikiak eskaintzen dira.
Laneko Bitartekaritza Zerbitzua	Enpresa, ikastetxe eta Lanbide Heziketako ikasleen arteko elkargunea da, helburu gisa duena gure ikastetxeetako ikasleen lan irteera erraztea, orientazioaren bidez eta lan poltsa espezializatu baten kudeaketaren bidez.
ITAI	Aktibatu egin da on-line tresna bat, ahalbidetzen duena Euskadiko LHko ikastetxe publikoetan ematen diren Lanbide Heziketa zikloetako plaza kopurua eta muga-notak ezagutzea.
Irakasleen ikastetxe arteko prestakuntza	Koordinazioa, sareko irakasleen formazio beharrian komunak ezagutzeko, eta erabakitako formazio ekimenen gertatzea.
II. IkasTxapelketa	Ikaslan Bizkaiako ikastetxe arteko txapelketa bikoteka palan eta esku pilotan. Kirol eta jarduera fisikoko ekimenen sustatzea zein Ikaslan Bizkaiako sarearen parte garen pertsonen arteko erlazioak ere.
II. Odol emate kanpaina	Sareko 13 ikastetxek hartzen dute parte bigarren deialdi honetan. Deialdi hau bi fasetan banatzen da: sentsibilizazioa eta odol ematea ikastetxeetan. Kanpaina hau Euskadiko Odol Emaileen Federazioak eta Ikaslanek sinatutako hitzarmenaren harira sortu da.

ENPLEGAGARRITASUNA



EKINTZAILTZA. Urratsbat

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako eta TKNIKAK koordinatutako programa da, Lanbide Heziketako ikasleei euren enpresa propioa sortzen laguntzeko helburua duena.




Ikaslan Bizkaia ikastetxeetan sortutako enpresak. 2015-2016 ikasturtea

Enpresa
ANDIKO MOTOR
NEUMÁTICOS BERRIZ CB
Díscola
GERAS Programación Psicosocial
PIPISKAO
ONANDI SUPERMERCATUA
Redatel Fibra Sociedad Limitada
Aidearte
NOA ume arropa
ETEGI
REFORMAS GUIJARRO
Flores del Norte
CoNNetWork
AELEK
Zuleima Guerrero
Louis Michel Liburuak
Alfonso Rodríguez
Ivadu Electronics
PINATAPEI
GAMEDENT
Clover House

EKINTZAILTZA. IkasEnpresa


Lanbide Heziketaren ekintzailtza espiritua garatze aldera, Industria Sailarekin lankidetzan garatutako hezkuntza-programa.



Ikastetxe bakoitzak landutako proiektu kopurua. 2015-2016 ikasturtea

Ikastetxea	Proiektu kopurua
CIFP ELORRIETA-ERREKA MARI LHII	30
CIFP FADURA LHII	21
CIFP IURRETA LHII	1
IES (ITS) ESCUELA DE HOSTELERIA DE LEIOA (ITB) BHI	8
CIFP NICOLÁS LARBURU LHII	2
CIFP REPELEGA LHII	1
CIFP TARTANGA LHII	20
CIFP TXURDINAGA LHII	13
IES ANDRA MARI BHI	1
IES ESCUELA AGRARIA DE DERIO- DERIOKO NEKAZARITZA ESKOLA BHI	1
IES (ITS) HOSTELERIA/OSTALARITZA (ITB) BHI	4

MUGIKORTASUNA



ikasLAN Bizkaia

Nazioarteko mugikortasuna funtsezkoa da bali-
o erantsiko gaitasunak gure ikasle zein irakas-
leen eskura jartzeko. Izan ere, beste herrialde eta
kultura batzuk ezagutzea bertako hizkuntzan mur-
giltzea baino askoz gehiago da; esate baterako,
irakaskuntza eta lan metodo berriak ezagutzea.

Europako proiektuetan parte hartzeko ikas-
tetxe, irakasle eta ikasleen eskaerari
erantzuna emateko sortu zen IKAS-
LANen mugikortasun proiektua

IRAKASKUNTZA MATERIALA. Laneki

www.jakinbai.eus
Laneki

Ikaslan Araba, Ikaslan Bizkaia, Ikaslan Gipuzkoa eta Hetel-ek sortutako programa, euskarazko ikasmaterialak ikastetxeen eskura jartzeko helburuarekin, hauek Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetan erabili ahal izan dezaten.

Ekimen honen bitartez, kalitatezko lanabes bereziak eskaini gura zaizkio Euskadiko Lanbide Heziketan parte den ikasleria euskal hiztun guztiari, eta horrela lagundu ere bai gure gizartearen hizkuntza normalizazioan.

Laneki-k sortua

Materiala	Familia
LPK-DUALA EUSKARAZ EGITEKO GIDA ETA DOKUMENTAZIOA	LH Duala Ikas-Ekinezko Erregimenean
AUTONOMIA PERSONALAREN SUSTAPENA 1-5 ETA 7. UD	
AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK	Gizarte eta kultur zerbitzuak
TELELARRIALDIK	
NAZIOARTEKO KOMERTZIOAREN KUDEAKETA ADMI. 1-12 UD	Merkataritza eta marketina
KONTROL FITOSANITARIOA	Nekazaritza
DIGCOMPORG ARO DIGITALEAN IKASKETA ERAGINKORRA SUSTATZEN	Informatika eta komunikazioak
ISTALAZIO DOMOTIKOAK (LOE)	Elektrizitatea eta elektronika
ANATOMIA PATOLOGIA(ZITOLOGIA ETA EHUNEN PROZESAMENDUA)PTT	Osasungintza
GARABI ZUBIA KURTSOA	Instalatzeta eta mantentze lanak

Irakasleen ekoizpena

Materiala	Familia
INFORMATIKA ETA SEGURTASUNA 1-4 Udak	Informatika eta komunikazioak
OSASUN ZUZKIDURA	Osasungintza
BULEGO_INFORMAT_CAMTA	Informatika eta komunikazioak
ACCES-WORD-EXCEL AURRERATUA	
AISIALDIKO JARDUERAK 2.UD	
LAGUNTZA PSIKOSIZIALA	
GIZARTEAREN ESKU-HARTZEAREN TESTUINGURUA	Gizarte eta kultur zerbitzuak
TELELAGUNTZA	
ERAIKUNTZA PROIEKTUA1: DISEINUA	
ERAIKUNTZA PR.OIEK. 2: NEURKETAK ETA BALOR. ARIKETA LIBUR	Eriakuntza
AUDIO INSTALAZIOA	Elektrizitatea eta elektronika
INGURUMEN HEZKUNTZAREN TEKNIKAK 1-5 UD	Segurtasuna eta Ingurumena

R400 programa

Materiala	Familia
MERKATARITZA ELEKTRONIKOA	Merkataritza eta marketina
GAINAZALA TXUKUNTZEA2/3	Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak
GAINAZALA TXUKUNTZEA3/3	
DISEINU GRAFIKOKO APUNTEAK	Fabrikazio mekanikoa
GARAPEN SOZIO AFEKTIBOA	
AUTONOMIA PERTSONALEKO SUSTAPENA 1-5 UD	Gizarte eta kultur zerbitzuak
HONDAKINAK MANTENDU ETA KUDEATZEKO LANAK	Segurtasuna eta Ingurumena
PLANIFIKATZEA	
WEB ORRIALDEEN DISEINUA (HTML5 ETA CSS3 GOI MAILAKO TEKNIKARIA)	Informatika eta komunikazioak
TURROIAK ETA MAZAPANAK // TXOKOLATEA ETA HAREKIN EGINDAKO PRODUKTUAK	Ostalaritza
GIZA BALIABIDEAK OSTALARITZA-ARLOAN	
ENPRESA EKIMEN SORTZAILEA	Administrazioa eta kudeaketa
DIRUZAINNTZA KUDEAKETAKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	
ILEAREN ANALISIA	Irudi pertsonala

KANALAK ETA EUSKARRIAK:

Enpresentzako zerbitzuen katalogoa

Bertan jasotzen dira Lanbide Heziketako ikastetxeek inguruko enpresei eskaintzen dizkieten zerbitzuak, beren lehiakortasuna hobetu dezaten (heziketa, teknologia, lankidetzaren proiektuak, laneko bitartekaritza,...).


Memoria 2015

Elkartearen eta Lanbide Heziketaren 2015eko bilakaerari buruzko txostena.


Heziketa Eskaintzaren Aldizkaria 2016-2017

Ikaslan Bizkaia sareko ikastetxeen heziketa eskaintza.


Ikaslan Bizkaia Buletina

Hiruhileroko Newsletter-a. 4 zenbaki. Lanbide Heziketaren esparruko gertaera eta datu esanguratsuenen inguruko informazioa emateaz gain, ikasleek eta ikastetxeek izandako esperientziak jasotzen ditu, berrikuntza, enplegagarritasuna, ekintzailtza etab.ekin lotutako proiektu eta ekimen ezberdinetan,...

611 Harpidedun

% 74,5 Irekiera


Ikaslan Bizkaia Web orria

On-line egoitza, informazio eguneratua elkar-teari buruz, gure ikastetxeei buruz eta Lanbide Heziketarekin lotutako guztiaren inguruan, enplegurako prestakuntza, enpresekin lankidetzak, berrikuntza proiektuak, etab.

54.224 Erabiltzaile

3,38 Saio bakoitzeko ikusitako orrialde kopurua

3'15" Saioen batez besteko iraupena

72,18% Bisita berri

Heziketa Eskaintza eduki bisitatuena

Sare sozialak 2016


2.142 Followers
501 Twets
226.991 Inprimatze
22% Elkarrekin



356 Fan
98 "Atsegin dut"
1.281.105 Hedapen osoa



2.829 Kontaktu



1 Bideo berri



6 Aurkezpen berri

Ikaskuntzarako bitartekaritza zerbitzua gehien ikusia



Irekiera

JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

Ekitaldia	Helburua/azalpena
II. IkasTxapelketa Torneoa	Ikaslan Bizkaiaren ikastetxeen arteko torneoa, pala edo esku-pilotan bikoteka. 2015eko bigarren seihilekoa. Ikaslan Bizkaia sareko Lanbide Heziketako ikastetxe ezberdinetako ikasle, irakasle eta gainerako beharginen arteko erlazioa sustatu.
“Emakumeak Ere...” Kanpaina	2016ko azaroa. Kanpaina honetan Twitter eta Facebook bidez gonbidapena egiten zitzaion gizarteari mezuak bidali zitzaizkien “#EmakumeakEre” edo “#LaMujerTambienEn” traolak osatuta, ikusgarritasuna indartzeko eta emakumezkoen presentzia gehiago eskatzeko gure gizarteko heziketa, profesional, kultura eta kirol esparruetan.
III. Ikaslan Saria	Abenduaren 15a. Getxo. Ekitaldi honetan banatzen diren sarien bidez, Ikaslanek aitortza egiten die Lanbide Heziketa sustatzeko lanean dabiltzan erakunde, programa eta pertsoneri. Kasu honetan, IKASLANek aitortza egingo die Atresmedia Fundazioari eta Mapfre Fundazioari, LH ezagutu proiektuan egindako lanagatik.